

## NARRATIBA

## Mingostasun xaloa

## KONTRARIOA

Lander Garro  
Susa, 2010  
201 orrialde. 16 euro

Iban BALERDI

Aurretik narrazio liburu bat ("Orain galdera berriak ditut") eta saiakera bat ("Ez merkeenak! Bai onenak!") argitaratu ondoren, hauxe da idazle errenteriarrak kaleratu duen lehen nobela. Buelta asko eman omen dizkio, zati asko kendu, aldatu, berriatzi... azken emaitza honetara heldu arte. «Idazteko ezabatzen jakin behar da. Hartu gaur egungo edozein liburu, eta konturatuko zara idazleak ez zuela hitzik ezabatu nahi». Liburuan bertan, idazteari eta idazlearen bakardadari eskaintzen dizkion tartean, hainbat hausnarketa interesgarri agertzen dira idazten aritua den batek idazten hasi nahi duen bati esanak.

Idazle izateko gogoia duena eleberriko protagonista nagusia da, Raul Oliveira gaztea. Betidanik bere burua tokiz kanpo ikusten duen hau, unibertsitate ikasketak utzi zituenetik zereginik topatzen ez duena, mozkortzen eta xakean jokatzeko aritzen da gustuko taberna zuloan sartuta. Oskar laguna du edozertarako kide, berarekin mintzatzen da honetaz edo hartaz. Bera da ondoan duen konfiantzazko bakarra. Adiskidetasuna dario beraien harremanari, bitxia baina egiazkoa den laguntasuna. Izan ere, familia auke-ratzen ez den bezala, norbait lagun moduan izan nahi duzun bai ala ez hautatu



baitaiteke. Eta Oliveirak sendiaz sentitzen duen lotsa arintzeko ezinbesteko makulua du laguna. Bien arteko eztabaidak, esandakoak eta esan gabe utzitakoak, zirikatzen nahian botatukoak... oso modu naturalean ateratzen dira eta ez dirudite batere behartuak. Are gehiago, oso gustura eta irrikaz jarraitzen dira.

Istoria autoreak ondo ezagutzen duen tokian kokatu du, Errenteriako Pontika auzoan, bera jaio zen inguruan, alegia. Langile eta etorkinen auzoa izateak ere nortasuna ematen dio kontakizunari, azaltzen diren toki gehienek bezalaxe. Galtzaileen kontuak baitira hemen irakurtzen direnak. Erdigune polit eta pon-

poxoetan lekurik ez dutenen bizimoduak. Garaiari dagokionez, 90eko hamarkada bukaerakoa da istorioa. Pentsatzekoa da Garrok berak bizitako urteak direla, eta pertsonaien izenen bidez eta batez ere, musika erreferentziekin ondo girotua dagoela uste dut. Gainera, bakoitzak berea kontatu behar duela onartuta ere, eskertzekoa da horrelako eleberri bat betiko 80ko hamarkadatik kanpo ikustea. Eta ez denboragatik bakarrik, baita bestelako zenbait topikotatik aldenteagatik ere.

Eleberria bizitzaren gordintasun eta gogortasunez estalia dago, euren burua gizartearen gehiengotik kanpo ikusten dutenen ikuspegitik, arrunta deitzen den horretatik landa. «Oliveirak bazekien us-tezko normaltasunik ez zegoela. Teoria hutsa zela. Hedabideen propaganda. Lanerako deia. Otzantasunaren aldeko maniobrak.[...] Hori guztia bazekien, baina zein gutxi balio zuen teoriak sentimenduak arrapaladan etortzen zitzaizkionean!». Hala eta guztiz ere, eta agian pertsonaia gehienak hogeitaz urteren bueltan dabilzako, xalotasunez beteriko zati ugari ditu. Eta umorez zipiritindutakoak ere bai, irakurleari irribarrea behin baino gehiagotan aterako diotenak.

Gustatuko litzaidake Oliveira, Oskar, Eneko eta beste guztien berri izatea aurrerantzean ere. Nobelaren amaierak ematen du jarraitzeko aukerarik eta autoreak ere ez dio posibilitate honi biderik itxi. Beste buelta mordo bat eman beharko dizkio, idatzi eta ezabatu, idatzi eta aldatu, idatzi eta berriatzi, ziur samar egon arte.



## Mikel IBARGUREN

## Sagarren «saudadea»

Gerezien denboran egon arren, urruneko ahots gordearen oihartzun bizia ekarri digute Josu Martinez, Hiba Castro eta Txaber Larreategik beren azken filmen. Historia lehen pertsonan kontatzea jendeari gizatasuna itzultzeko modua delakoan egin dute dokumentala, egin duten bezala. Eta, egiari zor, hunkiturik irten ginen Atalanteko zinema-aretoetik, denontzako egiaren bila doan istorioa baita, Alfonso Etxegaraik dioen bezala, filmaren hari nagusia.

Deportazioaren eguneroko gordinak zer eragin duen edota nola eragiten dien kontatzen digute Alfonso Etxegaraik nahiz Kristian Etxaluzek. Maitasunak, elkarrekikoak zein herriarekikoak, lotutako bikotearen testigantza benazkoa da, biluzia eta zuzena, badakigulako haien hitzetan, haien begiradetan beste askorenak direla islatzen; badakigulako haien herrimina eta urrutimina pertsonala eta, aldi berean, kolektiboa dela.

Finean, sentimenduen bidezko geografia humanoa baino ez da filma, non helburu nagusia itzultzea den. Idatzi gabe dagoen zigorra jasaten ari denak itzultzearekin egiten baitu amets, itzultzearen deiarekin esnatzen da goizero; oraindik sortu gabeko Euskal Herri horretara –Sarrionandiak esan bezala– itzultzeko gogoia obsesio bilakatu baita ikusezin den, inon ez den deserrituarentzat.

Saudadez basituriko aldarrimenez, bihotz erdibituarekin ari dira biak ala biak. Gardanak dira hitzak. Ispiluak bezain. Horrela, agurtzen diren bakoitzean azken aldia balitz legez agurtzen dute elkar, denbora iraganaren kontzientzia gero eta presenteari dutelako. Eta beldur horren erroak gero eta sakonago.

«Beti dut maitatuko/gerezien denbora/eta bihotzean dudan oroitzapena» dio frantziar kantu ezagunak. Orain gerezien denborarekin sagarren denbora ere maitatuko dugu, urrun, han urrun bizi den orok aiduru baitauka Domintxin herrian «Mari» Etxaluzen sahasia.


## KALERATU BERRIAK



## KAPRITXO DESORDENATUAK

**JAUZIKA**  
Bixente Serrano Izko  
Pamiela, 2010  
136 orrialde. 12 euro

ETAren 2007ko su-etenaren hausturak bultzatu zuen idazle nafarra aforismo liburu bat idaztera. «Jauzika» azken urteotan bere blogean idatzi dituen aforismoen bilduma da. Munduaren noranzkoaz, Euskal Herriko egoeraz, Europako demokrazien gabeziez eta etorkizunaz egiten du gogoeta bertan, besteak beste.



## GIZA HARREMANEN SORTZE ETA DEUSEZTEA

**DECEPTION ISLAND**  
Xabier Artola  
Alberdania, 2010  
48 orrialde. 8 euro

Kutxaren Donostia Hiria sarietako irabazleatiko bat da Artolaren «Deception Island», 2008an Otxoa de Alza mendizaleak izandako istripua oinarritat duen ipuina. Himalaian hiltzorian dagoen mendigoizale baten eta Euskal Herriatik hari lagundu nahian dabilen neska lagunaren arteko harremana kontatzen du Artolak.



## LA COMPLEJIDAD DE LAS RELACIONES HUMANAS

**HERIDAS CRÓNICAS**  
Karmele Jaio  
Ttartalo, 2010  
128 páginak. 11,50 euros

Cuentos que tratan sobre deseos insatisfechos, vidas anuladas, soledad en pareja, problemas de comunicación... Jaio enlaza una veintena de relatos breves pero profundos, una selección de cuentos extraídos de sus anteriores trabajos «Hambost zauri» y «Zu bezain ahul», que ella misma ha traducido al euskera.



## UNA HISTORIA DE CADENAS

**VIDA DE UN ESCLAVO AMERICANO**  
Frederick Douglass  
Capitán Swing, 2010  
260 páginak. 18 euros

Douglas es uno de los máximos exponentes de las «narraciones de esclavos». En este caso, el autor describe su recorrido como esclavo desde una plantación de Maryland hasta su fuga a Massachussets en 1838, donde se unió a la causa abolicionista y se convirtió en defensor de los derechos de la mujer.